

# HEZKUNTZA PROIEKTUA



DIETE IKASTETXEA



AIETE IKASTETXEA

# AURKIBIDEA

1. NON GAUDE

2. NOR GARA

3. ZER LORTU NAHI DUGU

Ikasle profila

Nahi dugun eskola

4. NOLA

Metodologia

Ikastetxeko dokumentuak

5. IHP-REN IRAUPENA ETA BERRIKUSPENA

6. ERANSKINAK

I. ICP

II. AJA

IV Harrera Plana

V Tutoretza Plana



AIETE IKASTETXEA

# NON GAUDE

Ikastetxea Donostiako Aiete auzoan kokatuta dago, inguruan ikastetxe kontzertatu ugari dago baina ez dago beste eskaintza publikorik. Beharra eta eskaera auzoko jendearengandik sortu zen. Lantxabe elkarteak bideratuta, Jakintza ikastolaren eskutik jarri zen abian Aiete ikastetxea, 2006ean 9 ikaslekin. 2009-2010 ikasturtean independizatu egin ginen.

Kalitatezko eskola publikoa bermatu nahian eta, oinarri sendoak eta koherenteak jarri nahian, ildo berritzaileak jarraitu ditu hasieratik familien eta irakasleen konpromezu eta inplikazioarekin.

Azken urteetan auzoko ezaugarri sozio-ekonomikoa eta kulturala aldatzen joan da eta gaur egun anitzagoa da. Errealidade hau gure eskolan isladatzen da, ikasleria zabala eta anitza sortuz. Gure ikastetxeko baloreek eta metodologiak aniztasun honi erantzun egokia ematea errezten dute.

Gaur egun, 135 ikasle ditugu. Puio kaleko eraikin txikian kokatuta egon gara, baina 3 damatxo plazako eraikuntza berria bukatuko dute eta 2016-2017 ikasturtetik aurrera bi eraikinak erabiltzen ditugu; eraikin berria nagusia izango da, HH4tik gorako taldeak, gela bereziak, gimnasioa eta bulegoak bertan egongo baitira. Puioko eraikinean, berriz, HH2 eta 3 urtekoak udaleko haurtzaindegikoekin batera egongo dira.

Aipatzekoa da Lantxabe elkartearekin dugun harreman estua eta auzoko bizitzan ikastetxeak duen presentzia. Lehen hezkuntza bukatzean, gure ikasleek Luberri edo Peñaflorida institutua aukera dezakete hezkuntza publikoaren artean.



# NOR GARA

Gu, Aiete Ikastetxe bezala definitzen gaituzten printzipio, balio eta ezaugarriak hauek dira:

Plurala eta inklusiboa. Denen ideiekiko, pentsamoldeekiko, sinismenekiko eta tradizioekiko errespetua bilatzen duena. Eskola komunitateko kide guztien parte hartzea eta ikasketa sustatzen duena.

Pertsonaren garapen integrala. Emozioen hezkuntza lantzen duena. Alaitasuna bultzatzen duena.

Euskalduna eta hizkuntz eleaniztasuna lantzen duena. Euskararen erabilpena normalizatuz, bi hizkuntza ofizialak ezagutuz eta erabiliz eta ingelesak nazioarteko komunikazio hizkuntzatzat duen garrantzia kontuan hartuz.

Eskola berritzailea lortzeko, etengabeko hobekuntzarekin eta irakasleen gaitasun profesionalarekin konprometitua dagoena.

Sormena eta ekiteko gaitasuna bultzatzen duena.

Pertsonen arteko konpromisoa, adiskidetasuna eta elkartasuna sustatzen duena.

Gizabidea. Herritar kritiko eta arduratsuak sortzen dituena. Bakearekiko, lankidetzarako eta elkartasunerako konpromisoa guztien ezberdintasunak errespetatuz.

Jakin-mina, hausnarketa eta zehaztasun zientifikoa sustatzen duena.

Herritar izateko eta gizarteratze aktiborako prestatzen duena. Auzoko eragile desberdinekin elkarlana bilatzen duena, auzoa bizi duena. Eskola ingurua erabiltzen duena eta auzoko baliabideak erabiltzen dituena.

Naturarekin harremana sustatzen duena. Natura bizi duena.

Ikaslea bere hezkuntzaren protagonista izatea. Berdinen arteko lankidetzeta sustatzen duena.



# ZER LORTU NAHI DUGU

Nahi ditugun ikastetxea eta ikasleak lortzeko, Hezkuntza sailak proposatzen dituen konpetentzietan oinarritzen gara.

## **Zehar konpetentziak:**

- \* Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- \* Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
- \* Elkarbizitzarako konpetentzia
- \* Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
- \* Izaten ikasteko konpetentzia

## **Diziplina barruko oinarrizko konpetentziak:**

- \* Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia
- \* Matematikarako konpetentzia
- \* Zientziarako konpetentzia
- \* Teknologiarako konpetentzia
- \* Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
- \* Arterako konpetentzia
- \* Konpetentzia motorra



# ZER LORTU NAHI DUGU: Ikasle profila

AIETE IKASTETXEA

EKINTZAILEA TOLERANTEA SORTZAILEA AUTONOMOA

JATORRA

ELEANITZA

BERE GAITASUNAK  
ETA MUGAK  
EZAGUTZEN DITUENA

KONPROMETITUA

ESKUZABALA

ZORIONTSUA

TALDE LANEAN  
MOLDATZEN DENA

JAKINMINA  
DUENA



PARTE  
HARTZAILEA

ALAIA

ERRESPETUA  
DUENA

MALGUA





# ZER LORTU NAHI DUGU nahi dugun eskola

## 1. Plurala eta inklusiboa

Hezkuntza komunitateko kide guztiak gure ikastetxeko proiektuan parte hartzea, eta lankidetzan aritzea lan giro onean.

Ikasle guztien inklusioa xede duten hezkuntza proposamenak lehenestea, gizarteko kultur aniztasunak ere kontutan izanik.



# ZER LORTU NAHI DUGU nahi dugun eskola

## 2. Garapen integrala. Emozioen hezkuntza. Osasuna, higiene eta elikadura.

Gure ikasleen nortasuna  
garatzea, hazteko,  
ikasteko, arrazoitzeko  
eta emozioak  
kudeatzeko

Gure ikasleen pertsona  
arteko harreman positiboak  
eraikitzeko, trebetasunak  
lantzea; desadostasunak  
konpontzeko gogoeta eta  
arrazoi bidea erabiltzen  
duten pertsonak heztea,  
bere kaxa erabakiak  
hartzeko laguntza eskainiz.

Gaitasunak ahalbeste  
garatzea. Lorpenak eta  
porrotak onartzea,  
norberaren mugetaz  
eta ahalmenetaz  
jabetuz. Konfiantza,  
segurtasuna,  
baikortasuna eta  
adeitasuna adieraztea.





# ZER LORTU NAHI DUGU nahi dugun eskola

## 3. Eskola berritzailea

Kalitatezko hezkuntza lortu nahian, irakasleei prestakuntza eta eguneratze jarraitua izateko aukera eskaintzea, ikastetxearen beharrak eta baliabideak kontutan hartuta.

Irakasleen artean koordinazio eraginkorra lortzea, eskola emaitzak hobetzea eta hobekuntza jarraitua helburutzat hartuta.



# ZER LORTU NAHI DUGU nahi dugun eskola

## 4. Euskalduna.

### Eleanitza, hizkuntz trataera integratua.

Kalitatezko hezkuntza lortu nahian, irakasleei prestakuntza eta eguneratze jarraitua izateko aukera eskaintzea, ikastetxearen beharrak eta baliabideak kontutan hartuta.

Irakasleen artean koordinazio eraginkorra lortzea, eskola emaitzak hobetzea eta hobekuntza jarraitua helburutzat hartuta.



# ZER LORTU NAHI DUGU nahi dugun eskola

## 5. Tolerantzia eta errespetuaren aldekua

Tolerantziako eta errespetuzko giroa sortzea.

Hezkuntza komunitateko kide guztien artean, gatazkak elkarrizketaren eta parte hartze arduratsuaren bidez konpontzea.



# ZER LORTU NAHI DUGU nahi dugun eskola

## 6. Balio etikoen eredua

Gure ikaskideak giza eskubideen, balio etikoen eta askatasunen errespetuan heztea, besteak diren bezala onartuz, jatorri soziala, arraza, sexua, erlijioa, iritziak, aurre iritziak baztertuz.

Bakearekiko, lankidetzarako eta elkartasunerako konpromisoak bultzatzea.



# ZER LORTU NAHI DUGU nahi dugun eskola

## 7. Jakin-mina bultzatzen duena

Ikasleen zientzia-metodologia, zehaztasun-premia eta datuetan nahiz frogetan oinarritutako erabakimena garatzea.



# ZER LORTU NAHI DUGU nahi dugun eskola

## 8. Herritara

Herritar izateko  
gizarteratzeko aktiborako  
prestatzea.  
Erantzunkizun sozialaren  
zentzua garatzea.

Ingurunearekiko eta  
gizartearekiko konpromiso  
solidarioan hezte,  
gizabidezko ohiturak  
garatuta.

Ikasleek natura  
maitatzea,  
errespetatzea eta  
gozatzea lortzea.





# ZER LORTU NAHI DUGU nahi dugun eskola

## 9. Bere hezkuntzaren protagonista

Talde lana eta ideia  
trukea sustatzea.

Lan kooperatiboaren  
ekarpenaz jabetzea.

Autonomia garatzeko  
egoerak bultzatzea.



# ZER LORTU NAHI DUGU nahi dugun eskola

## 10. Sormena areagotzen duena

Adierazpen artistikoez gozotzeko gaitasuna bultzatzea.

Norberaren sormena eta ekiteko gaitasuna sustatzea eta egoera desberdinen aurrean sormenez erantzutea egunerokotasunean.



# ZER LORTU NAHI DUGU

## nahi dugun eskola

### 11. Gorputz Hezkuntza. Jarduera fisikoa, ohitura onuragarriak eta higiene ohiturak

Jarduera fisikoak osasunean eragin positiboaz jabetzea. Joko, jolas eta kirolean ahalegina baloratzea errendimendua lehenetsiz.

Ohitura osasungarriak ezagutzea eta erabiltzea; elikadura orekatua, aisialdian jarduera fisikoa praktikatzea eta atsedenari garrantzia ematea.

Higiene ohitura egokia garatzea.



AIETE IKASTETXEA

# NOLA: METODOLOGIA

Gure eskolako lan egiteko modu **dinamikoak** eta **berriztatzailerak** joan dira finkatzen eskolako ezaugarri eta bereizgarri bezala. Ikuspegi **eraikitzailean** oinarritzen gara. Ikasketak **esanguratsuak**, **iraunkorrek** eta **funtzionalak** izan daitezten, ikasleak bizi duen eguneroko errealitatearekin lotura izatea garrantzizkoa da.

Maila guztietan **proiektuen bidez** lan egiten dugu. Ikasleak ikasi nahi dutena aukeratuz eta informazio bilatuz **protagonistak** dira. Ikasle guztien ezaugarriak errespetatzeko eta bakoitzaren gaitasuna garatzeko aukera ematen diegu. Ikasleengan hausnarketa sustatzen da, norbere ikasketa prozesuaz ohartarazteko eta pentsamendua kritikoa bultzatzeko.

**Informazio iturri anitzetan** oinarritzen gara eta testu liburuak horietako beste baliabideak dira. **Teknologia** berriek presentzia handia dute, bai ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, baita komunikazio baliabide bezala ere.

Ikastetxeko kide ezberdinen arteko **harremanak** era egokian eraikitzea beharrezkoa dela ikusirik, **Elkarbizitza Plana** ere aurrera eraman genuen eta handik eratorritako Plangintza aurrera daramagu.

Elkarlana dugu oinarri, **modu kooperatiboan** lan egiten dugu. **Ikasle autonomoak**, **ekintzaileak** eta **sortzaileak** nahi ditugun heinean bakoitzak bere iritziak eman eta ekarpenak egiteko aukera ziurtatzen dugu. Besteen ekarpenak errespetatzen eta aintzat hartzen ikasiaz eta malgutasuna eta ezberdinenenganako **errespetua eta tolerantzia** sustatuz.

Elkarrizketa, eztabaidak eta **arazoak ebazpenak** bultzatzen dituzten lan kooperatiboa egiteko teknika ezberdinak erabiltzen ditugu. Landuko duten proiektuaren helburuak irakasle eta ikasleek elkar lanean adosten dituzte. Ikasle **sortzaile eta kritikoa** bultzatu nahi ditugu, eskolako, auzoko eta hiriko errekurso ezberdinak erabiliaz.

Era ezberdinetan taldekatzen gara ikasleen arteko berezitasunak eta ezberdintasunak (adina, kultura, sexua, heldutasuna, gaitasunak..) taldea aberasteko alderdi bezala ikusten bai dugu, denok dugulako zerbait erakusteko eta ikasteko. **Aniztasuna aberasgarri** bezala bizitzea bultzatzen dugu.

Irakaslegoa ere elkarlanean aritzen gara. Etengabeko formakuntza bultzatzen dugu.



# METODOLOGIA: ardatzak

## Proiektuen bidez:

Gure eskolako lan egiteko modu dinamikoak eta berriztatzaileak, eskolako ezaugarri eta bereizgarri dira. Ikuspegi **eraikitzailean** oinarritzen gara. **Ikasketak esanguratsuak, iraunkorrak eta funtzionalak** izan daitezen, ikasleak bizi duen eguneroko **errealitatearekin lotura** izatea garrantzizkoa da.

Maila guztietan proiektuen bidez lan egiten dugu. **Ikasleak** ikasi nahi dutena aukeratuz eta informazio bilatuz **protagonistak** dira. Ikasle guztien ezaugarriak errespetatzeko eta bakoitzaren gaitasuna garatzeko aukera ematen diegu. Ikasleengan **hausnarketa sustatzen** da, norbere ikasketa prozesuaz ohartarazteko eta **pentsamendu kritikoa** bultzatzeko.

Informazio iturri anitzetan oinarritzen gara eta testu liburuak horietako beste baliabideak dira. Teknologia berriek presentzia handia dute, bai ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, baita komunikazio baliabide bezala ere.





# METODOLOGIA: ardatzak

## Elkarrekin bizitzen jakitea:

Norbere sentimendu, pentsamendu eta nahiak modu asertiboz adieraztea eta besteen sentimendu, pentsamendu eta desioak aktiboki entzun eta kontutan hartzeko gai izatea.

Taldean lan egiten jakitea, norbera arduratuz eta aniztasuna errespetatu eta baloratu.

Elkarbizitzarako beharrezkoak diren giza konbentzioetan oinarritutako printzipio etikoak jarraituz jokatzeko.

Gatazkak elkarriketa eta negoziazioaren bidez konpontzea.

Ikastetxeko kide ezberdinen arteko harremanak era egokian eraikitzea beharrezkoa dela ikusirik, **Elkarbizitza Plana** ere aurrera eramanez gure eratorritako Plangintza aurrera daramagu.

Elkarlana dugu oinarri, modu kooperatiboan lan egiten dugu. Ikasle autonomoak, ekintzaileak eta sortzaileak nahi ditugun heinean bakoitzak bere iritziak eman eta ekarpenak egiteko aukera ziurtatzen dugu. Besteen ekarpenak errespetatzen eta aintzat hartzen ikasiaz eta malgutasuna eta ezberdinenaren errespetua eta tolerantzia sustatuz.

Elkarriketa, eztabaidak eta arazoak ebazpenak bultzatzen dituzten lan kooperatiboak egiteko teknika ezberdinak erabiltzen ditugu. Landuko duten proiektuaren helburuak irakasle eta ikasleek elkar lanean adosten dituzte. Ikasle sortzaile eta kritikoa bultzatu nahi ditugu, eskolako, auzoko eta hiriko errekurtso ezberdinak erabiliaz.

Era ezberdinetan taldekatzen gara ikasleen arteko berezitasunak eta ezberdintasunak (adina, kultura, sexua, heldutasuna, gaitasunak...) taldea aberasteko alderdi bezala ikusten bai dugu, denok dugulako zerbait erakusteko eta ikasteko.

Irakaslegoa ere elkarlanean aritzen gara. Etengabeko formakuntza bultzatzen dugu.





AIETE IKASTETXEA

# METODOLOGIA: ardatzak

## Eleanitza:

Gure ikastetxeko hizkuntz nagusia **euskera** izango da eta eguneroko komunikazio egoeretan bere erabilera bermatzea dugu helburu.

Horretaz gain, **gaztelera**, hizkuntz ofiziala bezala eta **ingeleza** atzerriko hizkuntza bezala ere garatuko ditugu.

Hiru hizkuntzen garapena eta erabilera lortzearren, hauek **normaltasunez eta naturaltasunez** tratatuko dira.

Hizkuntza bakoitzak dituen berezitasun eta ezaugarriak dagozkion hizkuntzan landuko dira; bestalde, hizkuntzen artean komunak diren alderdiak era bateratuan tratatuko dira eta beste eremu eta arloetako ikasketak egiteko tresna bezala ere erabiliko dira.



AIETE IKASTETXEA

# NOLA: Ikastetxeko dokumentuak

## **Ikastetxeko Curriculum Proiektua:**

EAEEn indarrean dagoen curriculumaz aztertu ondoren, gure ikastetxeko curriculum proiektua sortu dugu, EAEkoan oinarrituta eta gure ikastetxeko ezaugarri eta beharretara egokituta.

Aiete Ikastetxeko ICP dokumentua I eranskinean atxikituta.

## **AJA:**

Eskolako funtzionamendurako organoak eta araudia zehazten duen dokumentua da.

AJA II eranskinean atxikituta.

## **Harrera plana:**

Gure hezkuntza komunitateko kide berriei harrera egokia eman dezagun, eremu bakoitzari egokitutako harrera plana garatu dugu.

Aiete Ikastetxeko harrera plana III eranskinean atxikituta.

## **Tutoretza plana:**

Ikasleak hezkuntza prozesuan gertutik gidatzeko nahian eta pertsona bezala ere hazten laguntzeko tresna bezala, tutoretza plana sortu dugu.

Aiete Ikastetxeko Tutoretza plana IV eranskinean atxikituta.

## **Elkarbizitza plana:**

Hezkidetzaren, tolerantziaren, elkarlana, errespetua... garatzen laguntzeko gure ikastetxeko Bizikidetzaren planean oinarritzen gara.

Bizikidetzaren Plana V eranskinean atxikituta.



# IHPren IRAUNALDIA ETA BERRIKUSPENA

Ikastetxeko Hezkuntz Proiektu hau baliagarria izango da oinarrizko dokumentu bezala baina aldi berean, behar berrietara egokitzen joan dadin eta eguneratuta egotearren, berrikuspenak maiztasunez egingo dira.

Lauzpabost urtean behin, hezkuntza komunitadeak IHPrekiko atxikimendua eguneratzeko ekintzaren bat gauzatuko da.

Halaber, AJAn dokumentu hau egunaretzeko premiaren berri emango duten adierazleak jasoko dira.

Bitartean IHPren edukia ikastetxeko komunitadean zabalduko da. Kide berriei ere, hau da, familia eta langile berriei, gure Hezkuntz Proiektua ezagutzera emango zaie.

Eskolako dokumentu guztietan aipatuko den dokumentua izango da.



AIETE IKASTETXEA

# I eranskina: Ikastetxeko Curriculum Proiektua

ICP



AIETE IKASTETXEA

# II eranskina: AJA

— —  
AJA  
—  
• •



AIETE IKASTETXEA

# III eranskina: Harrera plana

**HARRERA  
PLANA**





AIETE IKASTETXEA

# IV eranskina: Tutoretza plana

**TUTORETZA  
PLANA**

